

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2023KO UZTAILA


## Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak % 1,0 jaitsi dira 2023ko uztailan Euskal AEn

**Aurreko hilaren aldean (2023ko ekaina), salmentak % 2,3 jaitsi dira**

Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak % 1,0 jaitsi dira 2023ko uztailan Euskal AEn, iazko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko balio homogeneotan, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hilaren aldean (2023ko ekaina), eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, prezio konstanteetako salmentak % 2,3 gutxitu dira uztailan.

### Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hilarteko salmentek behera egin dute bi sektoreetan: *Elikaduran* % 2,0 eta *Gainerako produktuetan* % 2,7.

Urtearteko balioetan, 2023ko uztailan, 2022ko uztailaren aldean, prezio konstanteetako salmentak % 1,0 jaitsi dira, bai *Elikaduran*, bai *Gainerako produktuetan*.

## Euskal AEk azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2023

|                                                       | Prezio finkoak |         |                  |
|-------------------------------------------------------|----------------|---------|------------------|
|                                                       | m / m-12       | m / m-1 | A (m) / A (m-12) |
| <b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b> |                |         |                  |
| <b>Euskal AE</b>                                      | -1,0           | -2,3    | 0,0              |
| Araba/Álava                                           | -0,7           | -1,8    | -2,5             |
| Bizkaia                                               | -0,4           | -1,6    | 0,6              |
| Gipuzkoa                                              | -2,0           | -3,7    | 0,0              |
| <b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>            |                |         |                  |
| Janariak                                              | -1,0           | -2,0    | -0,5             |
| Gainerako produktuak                                  | -1,0           | -2,7    | 0,8              |
| <b>LANGILERIA-INDIZEA</b>                             |                |         |                  |
| Euskal AE                                             | 2,2            | -0,2    | 3,8              |

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2023ko Irailaren 5a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak murriztu egin dira hiru lurraldeetan, urtearteko balioetan, prezio konstanteetan eta egutegiko balio homogeneotan: % 2,0 Gipuzkoan, % 0,7 Araban eta % 0,4 Bizkaian.

Aurreko hilarekin alderatuta, hau da, 2023ko ekainarekin alderatuta, salmentek ere behera egin dute hiru lurraldeetan: % 3,7 Gipuzkoan, % 1,8 Araban eta % 1,6 Bizkaian.

Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako langile kopurua % 2,2 igo da Euskal AEn 2022ko uztailaren aldean. Langileen indizea, berriz, % 0,2 jaitsi da aurreko hilaren aldean.

### 2023KO UZTAILERA ARTE METATUTAKO ALDIAREN BALANTZEA

2023ko lehen zazpi hiletan, azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentek egonkor iraun dute, iazko aldi metatu beraren aldean. Sektoreka, *Gainerako produktuen* salmentak % 0,8 gehitu dira; *Elikagaien* sektorekoak, aldiz, % 0,5 jaitsi dira.

Urtean zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da Bizkaian (% 0,6); Araban, berriz, negatiboa (% 2,5). Gipuzkoan, azkenik, salmentek egonkor iraun dute (% 0,0).

Sektoreko landunen indizeak % 3,8ko hazkunde metatua izan du urteko lehenengo zazpi hiletan.

## **INFORMAZIO-OHARRA**

Urtetik urterako aldakuntzak kalkulatzeko, egutegiaren eraginak zuzenduta dauzkaten serieak hartzen dira oinarri, eta hiletik hilerako aldakuntzak kalkulatzeko, berriz, urtarokotasuna kontuan hartu gabeko serieak.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie “Merkataritza indizea azalera handiko saltokietan eta elikadura alorreko kate handietan” egiten lagundu diguten establezimendu guztiei. Horiei esker, hil honetako indizea **% 100ko estaldurarekin** kalkulatu da.

---

### **Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*